



FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera eraman eta produktuak egin ahal izateko, laguntza beharko dugu, guk ezin ditugun lanak gauzatzeko. Zehazki, **lehengai birziklatuekin hornituko gaituen enpresa** baten laguntza bilatu beharko dugu, gure produktuak egiteko lehengai birziklatuen beharra baitugu.



Getxon kokatuta dagoen enpresa batekin hitz egin dugu "Birziklapenerako gaikako material-bilketa" eta haiek izango dira guri birziklatutako materiala salduko digutenak. Ez dugu makinariarik beharko, **eskuz egindako bitxiak** izango baitira.



Bestalde, produktuak internet bidez salduko ditugunez, garraio enpresa bat kontratatu beharko dugu eskariak bezeroengana iristarazteko. Hori dela eta, Gipuzkoan bertan daukagun enpresa bat kontratatuko dugu, GKS, hain zuzen ere.

Gure enpresa aurrera eraman ahal izateko, baliabide hauek oso beharrezkoak eta garrantzitsuak dira, laguntza hau edukiko ez bagenu, ezingo genukeen ezer egin.

Nahiz eta hainbat gauzatarako enpresa batzuen laguntza behar izan, proiektua aurrera ateratzeko gure funtsezko baliabideak ere beharrezkoak ditugu. **Guk geuk** arduratuko gara produktuen diseinuetaz eta lortzen ditugun diru-sarrerak ere, guk kontrolatuko ditugu. Aldi berean, instagram eta korreoaren kontuen administratzaileak gu izango gara.

